

**EUSKALTZAINDIAREN  
AGIRIAK**



## LOIOLAKO JARDUNAK

1981-I-23/24

Fr. L. Villasante

Hasierako hitzak

Jaunak: Agur eta egun on!

Hemen, Loiolako Gogarte-etxe honetan, bildu gara Euskaltzaindiko barne arazoak sosegu piska batekin aztertzeko, eta ahal den neurrian beroiei irteera emateko. Beste hitzez esanik, gure egiturak gaurkotzeko, eta heldu diren bi urtetarako lan plan baten hari nagusiak edo lerro nagusiak taxutzeko.

Igarotako urteetan neronek bakarrik (bati edo besteri zenbait gauzatan aholku eskatuz) antolatzen nuen honelako plan bat. Bi urtetarako euskaltzainburu hautatzen nindutenean, txosten bat egiten nuen gure egoerari, beharrei, asmoei eta abar gain-begiratu bat egotziaz eta halako lan plangintza bat eskeiniatz.

Ikus *Euskera*:

“Epe berri baten aitzinean” (1973), 230.

“Datorren urtebikoari begira” (1975), 461.

“Urtebikoaren plangintza” (1977), 222.


Beraż, ahal nuen moduan, txosten horietan lan plan bat eskeintzen nuen. Gero, egia esan, erdizka betetzen zen. Gaitz bat zuten beharbada plan haiek: batek bakarrik egiten zituela, baina beteko baziren, bestean lankidetzaren behar zen. Oraingoan, huts hori erremediatzeko, bestela jokatzeari pentsatu dugu: plana egitean ere nolabait denok parte har dezatela, alegia.

Gogora datorkit Oñatin gertatua. Alkateak (ez oraingoak) obra batzuk egin zituen, eta gero, horiek pagatzeko, jendea zerga berezi bat bota zion. Norbaitek honela esan omen zuen: “Arraioa! Asmaitteko heu bakarrik, eta pagaitteko gu guztiok?”.

Hau gerta ez dadin, eta, noski, aunitzen begiek bakar batenak baino gehiago ikusten dutelako, oraingoan bestela jokatzeari pentsatu dugu. Denok

patxadaz bilduz, hartarako astia hartuz, geure egiturak, batzordeak eta abar bana-banaka aztertuko ditugu, zer hobetu edo aldatu behar den ikusiz, eta plangintza orokor baten lerro nagusiak marraztuz. Plangintza konkretoagoak eta zehaztuagoak gero batzorde bakoitzak egingo ditu, hemen hartutako bide nagusien arabera.

Beraz, egun hauek gure egiturak zertan hobe daitezkeen ikusteko dira. Denen artean ikusteko, alegia. Batzorde batzuk beharbada gaur zaharkituak daude edo horien beharrik gaur ez da; beste batzorde batzuetan aldaketak egitea komeni dela ikustea gerta daiteke; batzorde berriren bat sortu beharra ere bai.



Loiolako Jardunak (Loiola, 1981-I-23/24), J. Haritschelhar eta R. Badiola

Eta ikusten denaren arabera egingo dugu. Egia esan, batzordeen eraberritze orokorra egin zenetik ez da denbora asko igaro: urte pare bat. Ikus *Euskera*:

“Euskaltzaindiko batzordeen bir-antolaketa” (1979), 75-86.

Hala ere, denbora berriek erantzunkizun berriak eta larriak dakarzkigute. Eta horrek geure egoeraren ber-ikuste hau egitera behartzen gaitu. Eta lan plangintza orokor bat denon artean taxutzera ere bai, gero plan hori zehatzago batzorde bakoitzak bere aldetik xehetasun gehiagoz gorpuztuko badu ere.

Horretaz gainera, Barne-Erregeletan zer aldatu edo gehitu behar den ere aztertu eta erabaki behar dugu. Neurri handi batean hileroko batzarreetan hau egin da; beraz, gaia aski umotua dago; baina azken erabakia hartu behar da.

Horra zein izango den egun hauetako lana.

Badakizue nola, orain urte t’erdi, hasi ginen (Foruko komentuan, hain zuzen) Jardun batzuk egiten, Euskaltzaindiko barne arazoak guztion artean eztabaidatu, eta ditugun ahulezia eta ajeen sendabidea bilatzeko. Ikus *Euskera*:

“Foruko Jardunak” (1979), 825.

Oraingo hauek ere haien jarraipen edo segida izan nahi dute.

Izango ahal da dena gure Euskaltzaindi hau emankorrago, eta duen xedea bete dezan trebeago bihurtzeko! Halabiz.



## **BARNE ERREGELÉN ALDAKETA ETA GEHIGARRIAK**

7. Art. Diruzainak hilabete guztiez diru egoeraren berri emango dio Zuzendaritzari; hori bera eginen du hiru hilabetez behin euskaltzain osoen bilkura berezian; eta urtean behin finantzen gora-behera agiria azalduko du euskaltzain guztien batzarre arruntean. Agiri hori hel-araziko zaie, gainera, Euskaltzaindia beren subentzioekin laguntzen duten erakunde eta pertsoneri. Era berean, urtearen azken aldera hurrengo urteko aitzinkontua prestatuko da.

9. Art. Batzarreak onetsi edo birretsi behar dituen puntuak ukitu behar direnean, arrazoi gehiagoz komeni da hori egitea, hots, testuaren kopiak atera eta euskaltzain oso guztiei, gaiaz zer-ikusi duen batzordeko batzordekideei eta eska dezaten urgazleei garaiz bidaltzea.

12. Art. Batzarrea egin ondoan, Euskaltzainburugoak —edo haren ordezkide batek— agiri labur bat egin beza, prentsarako batzarrearen berri emanetz.

### **II. Ekonomi arazoa eta Ordainketak**

14. Art. Ofizialki ematen zaizkion laguntzak eta bere lanengatik datozkion etekinak ez dira aski Euskaltzaindikoko gastuen zuloa estaltzeko. Bestalde, etorpideen urritasun honek obrak aitzinatzeke eskuak lotzen dizkio. Horregatik on da Elkargoak pertsona bat eduki dezan, hots, Ekonomi-laguntzaile bat, Euskaltzaindiarentzat diru laguntzak bilatu eta lortuko dituen. Pertsona hori ez da euskaltzain osoa izango.

(Lehen, 14 bis) 15. Art. Euskaltzaindiak Kontulari bat izendatuko du. Kontulari honek presupostu arrunt eta desarruntentzako kontuak, Diruzainaren begiraldiaz eta Ekonomi-laguntzailearekin har-eman estuan dela, eramango ditu. Pertsona hau ere ez da euskaltzain osoa izango.

(Lehen, 14 ter.) 16. Art. Ekonomi batzorde bat egongo da, Diruzainaz, Ekonomi-laguntzaileaz eta Kontulariaz osatua; Diruzaina batzorde buru dela. Batzorde honek beste lagun batzuk ere izan ditzake kontseilari edo lan-kide gisa. Nahi-ta-ez, batzorde honen zereginak izango dira ekonomi alorreko honako arazo hauek:

— Har-emanetan izatea inprimatzaile eta salmenten arduradunekin Euskaltzaindiaren agerkari eta liburuei dagokien aldetik.

— Subentzio eta diru laguntzen ardura beregain hartzea, guztiaren kontu errendatuz, bai Euskaltzainburugoari, bai Euskaltzaindiari, ohi den unean. Halaber, Batzarreak edo Euskaltzainburuok gomendatuko dizkion beste zereginak betetzea.

(Lehen, 16 bis) 19. Art. Euskaltzaindia gai izango da kreditodun izateko, on aldakor eta aldaezinezkoen sal-erosiak egiteko.

### III.a) EUSKERA, agerkari ofiziala

(Lehen, 18) 21. Art. Euskaltzainburua da boletinaren zuzendaria. Redakzio batzorde bat ere izanen da —nahiz boletinarentzat bakarrik, nahiz boletinarentzat eta batzorde berezirik ez duten beste agerkarientzat—. Redakzio Kontseilu honetan egonen dira, Euskaltzainburuaz gainera, Buru-ordea, Idazkaria, Idazkari-ordea, eta beste batzuk berariaz izendatuak, nahiz euskaltzain oso nahiz urgazle. Redakzio-buruzagi bat ere izenda daiteke.

(Lehen, 21) 24. Art. Aldizkariaren Redakzio-batzordea Batzarreak hautatzen du, proposamendua Euskaltzainburuak egiten duelarik. Batzordearen iraupena berez bi urterako da, baina luza daitekeena.

#### b) Beste agerkari batzuk

(Lehen, 21 bis) 25. Art. Euskaltzaindiak sort litzake beste agerkari-sail batzuk ere, maiztasun jakinekoak ala bestelakoak, bilduma gisakoak edo monografi antzekoak, Biltzar, Jardunaldi etabarretako lanak, edo berariaz agindutako gai espezializatuak argitaratzeko, nahiz Iker nahiz Jagon Sailari, nahiz batzorde berezi baten eremuari dagozkionak.

(Lehen, 21 ter.) 26. Art. Aipatu bildumetan argitarako diren lan eta idazkien azterketa eta onartzea EUSKERA eta beste Argitalpenak” batzordearen zeregina izango da, salbu-eta hartarako berariazko batzorde bat dagoenean.

(Lehen, 22 bis) 28. Art. Batzordeak izan daitezke ala iraunkor ala suntsikor, eta Euskaltzainburugoari, Iker Sailari edo Jagon Sailari lotuak egon behar dute. Euskaltzainburugoari loturik daudenen zuzendaria Euskaltzainburua bera izango da. Era berean, Iker Sailaren eta Jagon Sailaren buru direnak beren Saileko batzordeen buru ere izango dira, eta batzorde bileretan lehen tokia izango dute. Gainerakoan, ordea, batzorde buru arruntek izango dute nork bere batzordearen aginpide eta gidaritza.

(Lehen, 28) 34. Art. Ordezkaritzei dagokien neurri handi batean —nahiz eta ez berei bakarrik—, bakoitzak bere eskualdean, Euskaltzaindiaren bi Sail nagusietarik baten arta izatea: hots, hizkuntzaren Jagon Sailarena (Araute-gia, 2. art.).



## V. Etxe-barneko gobernu eta manaiua

(Lehen, 29) 35. Art. Kontseilu baten eskuan —hots, Euskaltzainburu-goaren eskuan— egonen da etxe-barneko gobernu edo manaiua. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaz da osatua Kontseilu hau; eta obratze hutsezko gauzetan, Idazkari-ordeaz ere bai. Gainera, arruntki parte izango dute Kontseiluan Iker eta Jagon Saitetako Buruek eta bai Ordezkaritzetako Ordezkariek ere. Ekonomi-laguntzaileak, Kontulariak eta etxe-barneko manaiuari dagozkien beste kargudunek ere, arazoak hala eskaturik beharko denean, parte har dezakete Kontseiluaren gogoeta eta erabakietan.

## VII. Lagunak

(Lehen, 39 bis) 46. Art. Elkargoak izan ditzake *Euskaltzaindiaren Lagun*, betirako ez direnak. Horiek eskubidea dute, deitzen zaienean, batzarreetara etortzeko eta Elkargoaren batzordeetan lan egiteko.

(Lehen, 39 ter.) 47. Art. Euskaltzaindiaren Lagunak izendatzeko beharrezko da Zuzendaritzaren edo bi euskaltzain osoren proposamena, eta Batzarrearen ondoko onarpena. Proposamenean zehazki esan beharko da zein batzorderi loturik egongo den delako Laguna. Adieraz daiteke baita ere, izendapenaren iraupena. Adierazten ez denean, bi urtetarako izanen da.

## X. Erregela bereziak

Gehigarritzko artikulua. Barne-Erregela hauei gehigarri-gisa erantsiko zaizkie Artxibo-Biblioteca, Egoitza eta Ordezkaritza, Argitalpen, Alfabetatze eta besteren ibilpiderako egin edo egingo direnak, Arautegiak bere 41. artikuluan dioenaren arabera.

(1981.eko Urtarrilaren 24eko batzarrean onartua).



## **CAMBIOS Y ANEXOS DEL REGLAMENTO INTERIOR DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA**

Art. 7.º El tesorero dará cuenta, mensualmente, del balance de situación económica de la Institución, a la Junta de Gobierno; trimestralmente, del estado de las cuentas, en la sesión de los académicos de número; y anualmente, del balance general, en un pleno ordinario a todos los académicos, así como a las entidades y personas que subvencionan o ayudan a la Institución. Asimismo, al final de cada ejercicio se preparará el presupuesto para el año subsiguiente.

Art. 9.º Si se trata de puntos que se someten a la aprobación o ratificación de la Academia, con más razón aún se procurará obtener copias del texto en cuestión y remitirlo a tiempo a todos los señores académicos de número, a los académicos correspondientes, miembros de la comisión respectiva y a los demás académicos correspondientes que expresamente lo soliciten.

Art. 12. La Junta de Gobierno, o por delegación uno de los miembros, se encargará de redactar una breve nota informativa de la sesión celebrada, con destino a la prensa.

### **II. Gestión económica y dietas**

Art. 14. En tanto las subvenciones oficiales ni los productos de los trabajos y publicaciones no alcancen a cubrir los gastos de la Academia, y, mientras, esta precariedad de su situación económica impida o coarte el desarrollo de sus actividades, la Institución tendrá un gestor económico, con el cargo de buscar y recabar ayudas económicas para la Academia. Esta persona no podrá ser miembro de número de la Institución.

(Anter. 14 bis) Art. 15. La Institución designará un contador, que llevará las cuentas de los presupuestos ordinarios y de los extraordinarios de la Academia, bajo la supervisión del tesorero y en estrecha relación con el gestor económico. Tampoco esta persona podrá ser académico de número.

(Anter. 14 ter.) Art. 16. Habrá una Comisión económica, formada por el tesorero, que la presidirá, el gestor económico y el contador, pudiendo asimismo contar con otros miembros de carácter consultivo o de colaboradores en la gestión, que intervendrán necesariamente en las siguientes negociaciones de tipo económico:

— Tratar con los impresores y comisiones de venta en lo referente a las diversas publicaciones y fondos de la Academia.

— Hacerse cargo de las subvenciones y donativos, dando de todo ello cuenta al Consejo de la Junta de Gobierno y a la Corporación en la rendición de cuentas correspondientes, y cualesquiera otros cometidos que el Pleno o la Junta de Gobierno le delegare.

(Anter. 16 bis) Art. 19. La Institución tendrá capacidad de crédito, compra o enajenación de bienes muebles e inmuebles.

### III.a) EUSKERA, órgano oficial

Art. 20. La Academia edita un Boletín, denominado EUSKERA, que es su órgano oficial, el cual aparece con una periodicidad mayor o menor, según la cuantía o importancia de los documentos o trabajos a publicar.

(Anter. 18) Art. 21. El presidente de la Academia es el director nato del Boletín. Debe existir un Consejo de Redacción —bien exclusivamente para el Boletín, o bien, uno conjunto para el mismo y otras publicaciones que no tengan una comisión específica del que forman parte, además del presidente, el vicepresidente y otros miembros, sean numerarios o correspondientes, nombrados al efecto. Podrá designarse también un redactor jefe.

Art. 22. Toca al Consejo de Redacción examinar y admitir los trabajos y documentos que han de publicarse en el boletín, preparar la publicación de cada número, etc.

Art. 23. En el boletín se publicarán los trabajos de los señores académicos leídos en las sesiones, siempre que merezcan el refrendo del Consejo de Redacción, los acuerdos de la Academia, la documentación oficial sobre la marcha y actividades de la Institución, las actas de las sesiones, los discursos de ingreso, breves notas biográficas y bibliográficas de los miembros finados, noticias o reseñas de interés, ediciones de textos, bibliografía, etc., además de trabajos de investigación, aun de personas ajenas a la Academia.

(Anter. 21) Art. 24. El Consejo de Redacción lo elige la sesión académica, a propuesta del presidente. Su duración es bienal, pero prorrogable.

### b) Otras publicaciones

(Anter. 21 bis) Art. 25. La Academia podrá crear otras series de publicaciones, periódicas o no, que en forma de colecciones o monografías tengan como fin publicar trabajos de Congresos, Jornadas, etc., así como de temas

especializados encargados por la Institución, tanto de la Sección de Investigación, como de la tutelar, o específicas de una comisión determinada.

(Anter. 21 ter.) Art. 26. Para el examen y admisión de los trabajos o documentos que hayan de publicarse en las antedichas colecciones, será competente el Consejo de Redacción de EUSKERA y publicaciones, excepto en aquéllas que dependan directamente de una comisión específica.

(Anter. 22 bis) Art. 28. Las distintas comisiones, que podrán tener carácter permanente o transitorio, deberán estar adscritas a la Sección de Investigación, a la Sección Tutelar o a la Junta de Gobierno. El presidente de la Corporación, por lo que respecta a las comisiones adscritas a la Junta de Gobierno, así como los presidentes de las respectivas Secciones, serán los presidentes natos de las mismas y presidirán cuando asistan a las respectivas comisiones, sin perjuicio de que la presidencia ordinaria y efectiva la tengan quienes lo sean de las mismas.

(Anter. 28) Art. 34. A las delegaciones compete de un modo preferente, aunque no exclusivo, el atender a una de las grandes tareas de la Academia, que es la tutelar del idioma (Estatutos, art. 2.º), en su respectivo ámbito territorial.

## V. Gobierno y administración

(Anter. 29) Art. 35. El gobierno interior estará a cargo de un consejo, *Euskaltzainburugoa*, formado por la Junta de Gobierno de la Academia, y, para lo puramente ejecutivo, por el vicesecretario. Participarán asimismo y de forma ordinaria, en este Consejo, los presidentes de las Secciones de Investigación y Tutelar y los delegados de las Delegaciones. El gestor económico o el contador y cualesquiera otros cargos de régimen interior, que en cada caso se precisen, podrán igualmente participar en las deliberaciones del Consejo.

## VII. Colaboradores

(Anter. 39 bis) Art. 46. La Institución podrá disponer de *colaboradores* no vitalicios, que tendrán derecho a asistir a las sesiones académicas, previa convocatoria, y trabajar en las distintas comisiones de la Corporación.

(Anter. 39 ter.) Art. 47. Para la designación de colaboradores de la Academia, se requerirá propuesta de la Junta de Gobierno o de dos académicos de número, y la subsiguiente aceptación del Pleno en sesión académica. En la propuesta habrá de precisarse la Comisión, a la que el colaborador haya de ser adscrito necesariamente, pudiéndose indicar, asimismo, la duración de la designación, entendiéndose que, de no hacerlo, será bienal.

## **X. Reglamentos especiales**

Artículo adicional. Se incorporarán al Reglamento Interior los reglamentos especiales para el funcionamiento particular de Archivo-Biblioteca, Sede y Delegaciones, Publicaciones, Alfabetización y otros que se crearen de conformidad con lo previsto en el artículo 41 de los Estatutos.

(Aprobado en la sesión académica de 24 de enero de 1981 en Loiola.)

## **AMENDEMENTS AU REGLEMENT INTERIEUR DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE**

Article 7. Le trésorier rendra compte chaque mois, du bilan de la situation économique de l'Institution, au bureau chaque trimestre, des comptes de trésorerie, à la réunion des académiciens titulaires; et chaque année, du bilan général, à l'assemblée ordinaire de tous les académiciens, ainsi qu'aux organismes et aux personnes qui subventionnent ou aident l'Institution. Au terme de chaque exercice on préparera également le budget de l'année suivante.

Article 9. S'il s'agit de sujets qui sont soumis à l'approbation ou à la ratification de l'Académie, à plus forte raison faut-il faire des copies des textes en question et les remettre à temps à tous les académiciens titulaires, aux membres correspondants de la commission concernée et aux autres membres correspondants qui le désireraient.

Article 12. Le bureau, ou l'un des membres du bureau, par délégation, se chargera de rédiger pour la presse, une brève note d'information, sur la séance passée.

### **II. Budget et Frais de Deplacement**

Article 14. Aussi longtemps que ni les subventions officielles, ni les recettes provenant des travaux et des publications n'arrivent pas à couvrir les dépenses de l'Académie et que, d'autre part, ce manque de moyens économiques empêche ou gêne le développement de ses activités, l'Institution aura un gérant économique, chargé de rechercher et de susciter des aides économiques pour l'Académie. Cette personne ne pourra être membre titulaire de l'Académie.

(Ant. 14 bis) Article 15. L'Institution désignera un Comptable qui tiendra les comptes des budgets ordinaires et extraordinaires de l'Académie, sous le contrôle du Trésorier et en étroites relations avec le Gérant économique. Cette personne ne sera pas non plus membre titulaire de l'Académie.

(Ant. 14 ter.) Article 16. Il y aura une Commission économique, formée du Trésorier, qui la présidera, du Gérant économique et du Comptable. Elle pourra également comprendre d'autres membres à titre consultatif ou des collaborateurs gestionnaires qui interviendront nécessairement dans les négociations de type économiques de cet ordre:

— Relations avec les imprimeurs et commissions de vente des divers fonds et publications de l'Académie.

— Problèmes des dons et subventions, sous le contrôle du bureau et avec compte rendu à l'Institution, ainsi que toute affaire pour laquelle elle recevrait délégation du bureau ou de l'assemblée.

(Ant. 16 bis) Article 19. L'Institution est habilitée à emprunter, acheter ou aliéner des biens meubles et immeubles.

### **III.a) EUSKERA, organe officiel**

(Ant. 18) Article 21. Le Président de l'Académie est le directeur du Bulletin. Il existe un Conseil de Rédaction —soit exclusivement pour le Bulletin, soit pour le Bulletin et pour l'ensemble des publications qui ne possèdent pas une commission particulière dont font partie, outre le Président, le Vice-Président et d'autres membres titulaires ou correspondants de l'Académie, nommés à cet effet. On pourra également nommer un rédacteur en chef.

(Ant. 21) Article 24. Le Conseil de rédaction du bulletin est élu au cours d'une séance de l'Académie, sur proposition du Président. Son mandat est de deux ans, renouvelable.

### **b) Autres publications**

(Ant. 21 bis) Article 25. L'Académie pourra créer d'autres publications périodiques ou non, qui sous forme de collections ou de monographies auront pour but de publier les travaux des Congrès ou de Journées d'Etudes, etc. ainsi que les travaux spéciaux commandés par l'Institution, aussi bien par la Section Investigation que par la Section Tutélaire, ou relevant d'une commission déterminée.

(Ant. 21 ter.) Article 26. Pour l'examen et l'acceptation des travaux ou des documents qui devront paraître dans les collections susdites, sera compétent le Conseil de Rédaction de EUSKERA et des Publications, exception faite des textes relevant directement d'une commission spécifique.

## **IV. Structure interne et fonctionnement**

(Ant. 22 bis) Article 28. Les diverses commissions, qui pourront avoir un caractère permanent ou transitoire, devront se rattacher soit à la Section Investigation, soit à la Section Tutélaire, soit au Bureau. Le Président de l'Académie, pour ce qui concerne les commissions rattachées au Bureau, ainsi que les présidents des Sections respectives seront les présidents-nés des commis-



sions et présideront les réunions des diverses commissions, quand ils y assisteront, étant entendu que la présidence ordinaire et effective revient aux présidents des dites commissions.

(Ant. 28) Article 34. Il appartient par priorité aux Délégations, quoique de manière non exclusive, de s'occuper de l'une des grandes tâches de l'Académie, c'est à dire, de sa tâche tutélaire (Status, art. 2) dans leurs régions respectives.

## V. Direction et Administration

(Ant. 29) Article 35. La directions intérieure est à la charge d'un Conseil, *Euskaltzainburgoa*, formé par le bureau de l'Académie et pour la partie exécutive par le Secrétaire général adjoint. Participent également et de forme ordinaire, à ce Conseil, les présidents des Sections Investigation et Tutélaire et les Délégués des Délégations. Le gérant économique et le comptable ou tout autre employé dont la présence sera jugée nécessaire, pourront participer aussi aux délibérations du Conseil.

## VII. Collaborateurs

(Ant. 39 bis) Article 46. L'Institution peut disposer de *collaborateurs* temporaires, qui auront le droit d'assister aux sessions académiques, quand ils auront été convoqués et de travailler au sein des diverses commissions de l'Académie.

(Ant. 39 ter.) Article 47. Pour la désignation des collaborateurs de l'Académie, sera nécessaire une proposition du Bureau ou de deux académiciens titulaires, ainsi que l'acceptation subséquente de l'assemblée plénière de l'Académie. La proposition précisera à quelle commission sera rattaché le collaborateur et éventuellement la durée de la désignation; celle-ci étant de deux ans, si aucune autre précision n'est donnée.

## X. Réglements spéciaux

Article additionnel.—Seront ajoutés au règlement intérieur, les reglements spéciaux pour le fonctionnement particulier, des Archives-Bibliothèque, du Siège central, des Délégations, des Publications, de l'Alphabétisation et des autres organismes qui seraien créés en accord avec l'article 41 des Statuts.

(Approuvé au cours de la séance académique du 24 Janvier 1981.)



## ARAUTEGIA ETA BARNE ERREGELAK ARGITARATZEAZ ETA EUSKALTZAINDIAREN LAGUNAK IZENDATZEAZ

*Donostian, 1981, Maiatzak 29*

*Fr. Luis Villasante*

### I

Gure gaurko batzar deian honako gai hau dator: “Euskaltzaindiaren lagunak” saileko lehen izendapenak egitea.

Gai honek historia luzetxoa dauka. Esan nahi dut, arrazoi bategatik edo bestegatik, asko eta gehiegi atzeratu zaigula.

Oroit naiz nola Arrasateko biltzarraren ondoan, Arrasateko Estadioan, jende aurrean (beraz, 1979.eko Abenduaren 23an) euskaltzain urgazle eta oharezko berrien kontu ematerakoan, guti gora-behera hauxe esan nuen: Izendapen haietan batez ere jende umoa sartzen zela, eta Euskaltzaindiak badakiela gazteen artean langile pin asko dela, eta horientzat aurki sail edo maila berria jarriko zuela.

Lehenagotik zetorren kontu edo asmo hau, Foruko jardunetatik, oker ez banaiz.

Arautegian artikulua berri batzuk gehitu nahi ziren: bat “Euskaltzaindiaren Lagun” maila berri horrena, eta beste bat Euskaltzaindia ondasunen jabe-goa izateko eta salerosiak egiteko gai dela dioena.

Artikuluok redaktatu eta gure aldetik onartu ere egin ziren, lege gizonekin kontsultatu ondoren. Gero gestioak egin ziren Madrilen. Han esan ziguten Arautegia aldatzea zaila zela, eta hobe genuela gauza horiek Barne Erregeletan sartzea. Eta hala egitea erabaki zen.

Batzar-agirietan ikuska ibili naiz ea zenbat aldiz agertzen den kontu hau. Aipamen edo erreferentzi hauek aurkitu ditut (beharbada pasatuko zitzaidan bat edo beste):

*Eusker*a (1979), 720: “Euskaltzaindiaren Arautegia aldatu beharra dagoela ikusi da... c) Ugazle eta euskaltzain ez direnen laguntza lortu nahian, lankide maila berri bat sortzeko. Lankide hauen Euskaltzaindiarekiko lotura

beren lanaren iraupenaz mugatua izango da". (1979-IX-28ko batzarrea. Beraz, Arrasateko Biltzarra baino lehen).

*E* (1981), 172: "Foruan ontzat emandako bidetik, arautegia aldatu beharra ikusten da. Alde batetik, laguntzaile maila berri bat sortu nahi dugu, batzorde eta lan berezietarako lagungarri. Lanak eskatzen duen iraupenaz mugatua izango da izendapen hau" (1980-I-25eko batzarrea).

*E* (1981), 181: "Arautegian hiru artikuluko gehitzeko gestioa, hots, laguntzaile maila berri batena eta ondasun errejistratzearena egina dela kontu eman du Idazkari-ordeak. Unibertsitate eta Ikerkuntza Ministeritzak bere oneritizko diktamena eman duela, Barne Erregeletan sartzeari gomendatuz, adierazi du. Beraz, Barne Erregeletan ezartzea erabakitzen da eta abagadune hau aprobetxaturik, bide batez, euskaltzainen artean Irailerarteko epea irekitzen da, Barne Erregeletako beste artikuluren bat aldatzea edo gehitzea proposatzeko" (1980-VI-27ko batzarrea).

*E* (1981), 186: "Barne Erregelen berritzea. Gaur bukatzen da oharrak egiteko epea. Lizundiak ekarri ditu bere zuzenketak eta irakurri ondoan, txosten bat egiteko eskatu zaio. A. Irigoyen eta J. A. Arana arduratuko dira Liburutegirako aurre-arau bat gertatzen eta, era berean, L. Villasante eta J. L. Lizundiak ekarriko dute Lagun berrien mailako atala sartzeko proposamena" (1980-IX-26ko batzarrea).

Azkenik, aurtengo Urtarrilaren 24ean Loiolan egindako batzarreetara Lizundia jaunak ekarri zuen Barne Erregelen testu berritua. Han dena aztertu eta onartu zen, bertan erabakitako aldaketekin. Bakarrik utzi zen "corrección de estilo" delakoa egiteko, baina gainerakoan onartua gelditu zen. Nik euskal testuaren itzulpenak eta zuzenketak egin ditut, eskatu zidaten bezala. Gaztelaniazko testuan ere estiloko ukituak eginak direla uste dut. Frantsesezko testuaren egoera zertan den ez dakit.

Dena dela, asmo zaharra da Arautegiaz eta Barne Erregelez liburuska eskuarra argitaratzea, batez ere gure artean erabiltzeko. Bestela, aldizkarian galduak gelditzen dira, eta topatzeko nekea ez hartzeagatik, behar hainbat ez ditugu ez ezagutzen, ez baliatzen. Uste dut oraintxe dela liburuska hori argitaratzeko garaia. Lehenago ere hala egiten zen. Nik baditut 1920 eta 1954eko folletoak, Arautegi eta Barne Erregelekin.

## II

Oker ez banaiz, Loiolako bilera hartan berean esan zen Maiatzeko batzarrearako, luze jota, egin behar zirela Euskaltzaindiaren Lagunen lehen izendapenak. Barne Erregelek diotenez, *Lagun* horiek batzorde jakin batean lan egiteko izendatzen dira.

Gure batzordeen organigramari gain-begiratu bat botaz, bertan honako jaun-andre hauek datoz, ez euskaltzain oso eta ez urgazle ez direnak:

R. Badiola  
 Ana Mari Etxaide  
 J. M.<sup>a</sup> Etxebarria  
 Ch. Videgain  
 M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte  
 J. M. Aleman  
 A. Ariznabarreta  
 G. Aurrekoetxea  
 Miren Azkarate  
 G. Elortza  
 J. L. Goikoetxea  
 I. Usabiaga  
 A. Aranburu  
 J. M. Etxezarreta  
 R. Iraola  
 A. Muniategi

Nik proposatzen dut, bada, gure batzordeetan lankide diren pertsona hauen alde Euskaltzaindiaren Lagunen izendapen hori egin dadin. Eta eskatu-ko nuke, gainera, garbi geldi dadila euskaltzain oso berri baten autapena egin behar denean, *Lagun* direnen artean ere egin ahalko dela hautapen hori. Bestela, euskaltzain urgazleak izendatzeko dugun ate estuakin, frankotan, auke-raren eskasiagatik, gaizki ibili beharko dugu euskaltzain osoak izendatzeko ordua datorkigunean.



## **AZKUE BIBLIOTEKA**

### **Erregela Bereziak**

1. Euskaltzaindiaren Liburutegi eta Artxiboa biltzen dituen etxe eta erakundea Azkue Biblioteka deitzen da. Euskaltzaindiak sortzetik Bilboko Erribera kalean darabilen etxea da Azkue Bibliotekaren egoitza.

Biblioteka honen hastapeneko oinarria, R. M. Azkueren liburutegia eta artxiboa da, bereziki hizkuntzari, teologiari eta musikari dagozkionetan, eta horregatik darama bere izena. Geroago beste zenbaiten emaitzez ere aberastu da, hala nola, Sebero Altube eta besterenez.

2. Euskal gaiak eta beren ingurukoak, bereziki hizkuntzari eta literaturari dagozkionak, dira Azkue Bibliotekak bilduko dituenak.

3. Erregela Berezi hauetan xedatzen diren baldintzekin, zerbitzu publikorako zabala izango da.

4. Sail hauetan banatzen da:

- 1) Liburutegia (liburu, mapa, kartel eta abar).
- 2) Hemeroteka.
- 3) Esku izkribu artxiboa.
- 4) Fonoteka eta filmoteka.
